



Valsalvako maniobraren eta sinu karotideoaren masajearen eraginkortasunaren alderaketa takikardia suprabentrikularren itzulketan: Errebisio literarioa.

2023/2024

VITORIA - GASTEIZKO ERIZAINITZA
UNIBERTSITATE ESKOLA

EGILEA: Jon Argote Anuncibay

ZUZENDARIA: Lorena Hernando Gorgojo

HITZ KOPURUA: 5043

Aurkibidea

SARRERA.....	1
ESPARRUA ETA JUSTIFIKAZIOA	2
HELBURUA.....	5
METODOLOGIA	6
EMAITZAK ETA EZTABAIDA	7
VALSALVAKO MANIOBRA VS VALSALVAKO MANIOBRA ERALDATUA	8
VALSALVA MANIOBRA VS SINU KAROTIDEOAREN MASAJEA	11
VALSALVA MANIOBRA VS VALSALVA MANIOBRA ERALDATUA VS SINU KAROTIDEOAREN MASAJEA	12
ONDORIOAK	14
Etorkizuneko ikerketetarako gomendioak.....	15
LIMITAZIOAK	16
GrALak Garapen Jasangarrirako Helburuei egindako ekarpenak	16
BIBLIOGRAFIA.....	17
ERANSKINAK.....	19
1. ERANSKINA: BILAKETA-TAULA	19
2. ERANSKINA: KONTZEPTU-TAULA	24
3. ERANSKINA: FLUXU-DIAGRAMA	25
4. ERANSKINA: IRAKURKETA KRITIKOAREN TAULAK.....	26
5. ERANSKINA: ZUHAITZ KATEGORIALA.....	30
6. ERANSKINA: LABURPEN-TAULA	31

SARRERA

Marko kontzeptuala: takikardia suprabentrikularrak (TSB) bihotz-erritmoaren asaldurak dira. Ondorioz, bihotz-maiztasun azkarra dute, erregularra edo irregularra. Arritmia horiek eragin nabarmena izan dezakete pazienteen bizi-kalitatean, baita konplikazio kardiobaskular larriak izateko arriskua areagotzen dute, hala nola bihotz-gutxiegitasuna edo iktus bat jasateko arriskua. TSBen artapenean, maniobra bagalak bihotz-erritmo normala berrezartzeko estrategia eraginkorra eta ez-inbaditzailea direla erakutsi da. Maniobra horien artean Valsalvako maniobra, aurpegia ur hotzean murgiltzea edo nerbio bagoa masaje karotidideoaren bidez estimulatzea daude. Maniobra horiek nerbio-sistema autonomoan eragiten dute, bihotz-maiztasuna murrizteko eta erritmo sinusala berrezartzeko.

Helburua: takikardia suprabentrikularren maneian, bihotz-maiztasuna bere onera itzultzeko balsalva maniobra eta sinu karotideoaren masajearen eraginkortasuna aztertzea pertsona helduetan.

Metodologia: errebisio literarioa. Ikerketa burutzeko bilakerta era sistematikoan Medline OVID, Cochrane, CINAHL, EMBASE eta LILACS datu-baseetan egin da. Horrez gain, eskuzko bilaketa ScienceDirect-en gauzatu da. Bilaketak egiteko hurrengo hitz gakoak erabili dira; “Tachycardia, Supraventricular”, “Valsalva maneuver”, “Carotid sinus” eta “Vagal maneuver”. Hitz gakoekin bilaketa-ekuazioak eraiki ziren AND eta OR operadore booleanoekin.

Emaitzak: ikerkuntzak Valsalvako Maniobra, Valsalvako Maniobra eraldatua eta Sinu Karotideoaren Masajearen arteko alderaketa egiten dute. Azken hamar urteeko ikerkuntzak Valsalvako Maniobra eraldatuaren aldeko emaitzak frogatzen dute beste bi maniobreakin konparatzean. Ikerkuntzak ere, maniobrak egiteagatik sortu ahal diren albo-ondorioetatik ikertzen dute. Ez ziren frogatu albo-ondorio garrantzitsuak maniobrak egin eta gero.


Ondorioak: ikerkuntzen emaitzetan opinarriz, Valsalvako Maniobra eraldatua da takikardia suprabentrikularren kudeaketa klinikoetan maniobra bagal eraginkorrena, bere kardiobertsio-tasarengatik, albo-ondorio agerpen gutxiengatik eta maniobra oso merkea delako.

ESPARRUA ETA JUSTIFIKAZIOA


Bihotza giza gorputzaren gihar garrantzitsuenetako bat da, kono formakoa. Toraxaren erdian aurkitzen dugu eta bere funtzioa odolaren zirkulazioa burutzeko da. Bere funtzioa betetzeko, lau barrunbe ditu; bi aurikula goiko partean eta bi bentrikulu beheko partean. Fisiologiari dagokionez, odola aurikuletatik bentrikuluetara pasatzen da, eta hortik, ejetkatzen da odola gorputz osora. Zirkulazio eraginkorra lortzeko, bihotzaren eskuinaldea odol ez oxigenatuz arduratzen da, birikien arteriaren bidez birikitara bidaltzen da odola, han oxigenatua izan dadin. Bestalde, ezkerreko odola oxigenatuz arduratzen da, aortaren bidez, odola zeluletara garraiatzeko (1).

Erritmo kardiakoa erregularra mantentzeko, sistole eta diastoleak zikloka gertatzen dira, bihotzaren bide elektrikoa jarraituz. Taupada nodu sinusalean hasten da, taupada markagailu naturalean. Hor despolarizazioa gertatuz gero, kinada aurikulen kontrakzioa (sistolea) eragiten du bia internodaleen bidez. Lehen fase hau bihotz maiztasuna ezarriko du (normalean 60-100 taupada minuturo). Kinada ez da hor gelditzen, bide elektrikoa jarraitzen du eta nodu aurikulobentrikularra zeharkatuz eta 0,1 segunduko geldialdia eginez, bentrikuluen betetzea ahalbidetzen du. Behin bentrikuluak odolez betetzen direnean, kinada bere azken puntura ailegatzen da, Purkinje zuntzetara, His-en balatik zehar pasatzen. Azkenik, sistole bentrikularra sortuz. Ziklo hauen arteko koordinazioa funtzioskoa da ahalik eta arazo kardiobaskular gutxien izateko eta erritmo kardiakoa erregularra mantentzeko. Arritmia erritmo sinusalaren alterazioak dira (2) eta ziklo elektriko hauen akatsak izaten dira arritmien kausa nagusia (1,2).

Arritmia sailkatzeko hainbat era desberdina daude: bihotz maiztasunaren arabera (taki arritmia/bradiarritmia), QRS konplexuaren zabaleraren arabera (estua/zabala), erregularitasunaren arabera (erregularra/irregularra) eta jatorriaren arabera (suprabentrikularrak/bentrikularrak). Arritmien balorazioa nagusiki elektrokardiogramaren (EKG) bidez egingo da (3). EKG frogatik diagnostiko bat da funtzio kardiakoa baloratzeko. EKGan uhin desberdin aurki ditzakegu, P, Q, R, S eta T, hauetako bakoitza bide elektrikoaren momento zehatz bat adierazten digu:



Irudi 1. Bihotzaren bide fisiologikoa. Iturria: Google irudiak



Irudi 2. EKGren onden identifikazioa. Iturria: MSD manuals. ECG: lectura de las ondas

Takikardia suprabentrikularrei dagokienez, Hisen balatik gorako jatorria duten arritmiek osatzen dute. TSBak hiru mota desberdinetan sailka ditzakegu bere jatorriaren arabera; takikardia aurikularrak (Fibrilazio aurikularra, Flutter aurikularra), takikardia intranodalak eta bide osagarrietako takikardiak (Wolff-Parkinson White). Elektrokardiografikoki identifikatu ahal dira, QRS estuekin eta P uhinaren asaldurekin adierazten direlako, bihotz maiztasun oso altuarekin batera (4) .

Takikardia suprabentrikularrak arritmia ohikoenak izaten dira kliniketan. Biztanleria orokorren prebalentziari dagokionez, ESC (European Society of Cardiology) gidaren arabera, TSBrena 2,25/1.000koa da, eta intzidentzia 35/100.000 koa. Ikerketa epidemiologikoak eskasak badira ere, hainbat ikerlari ondorioztatu dute Europa mailan emakumeak gizonezkoek baino bi aldiz gehiago pairatzen dituztela TSBak, eta, horrez gain, 65 urteko edo gehiagoko pertsonen 5 aldiz arrisku handiagoa dute takikardia suprabentrikularra izateko gazteenek baino. Ospitaleetan gehien maneatzen diren TSBak fibrilazio aurikularrak eta intranodalak dira (5). Ondorioz, baliabide ekonomiko eta diagnostiko izugarri behar dira hauen maneirako (6). Erradiofrekuentzia bidezko ablazioarekin egiten den tratamenduari dagokionez, derrigorrezko tratamendutzat hartuz gero, urtero 3 mila miloi euroko inpaktu ekonomikoa du botikekin eta ospitaleraketekin batera mundu mailan (7).

Takikardia suprabentrikularrak, pazienteengan egoera desatseginak sor ditzake, sintomekin batera. TSBren sintoma nagusien artean disnea, astenia, palpitzioak, zorabioak... aurki daitezke, horregatik oso garrantzitsua da diagnostiko goiztiarra eta tratamendua burutzea. Horrez gain, fibrilazio aurikularraren kasu, tronbo arriskua eta beraz, iktusa izateko arriskua handia da (5).


Arritmia hauetan, kasu gehienetan fase akutuan burutzen da tratamendua bihotza erritmo sinusalera bueltatzeko. Tratamenduen artean bi nagusi aurki daitezke; farmakologikoa eta ez farmakologikoa, azkenengo hauen artean maniobra bagalak nagusienak izanik. Tratamendu farmakologiokoari dagokionez, takikardia suprabentrikularren diagnostikoan oso erabilgarriak izaten dira antiaritmikoak (adenosina, amiodarona...), eta betablokeatzaileak ere erabiltzen dira patologia honen tratamendu eta diagnostikorako (5).

Maniobra bagalen fisiologiari dagokionez, bihotz maiztasuna jaisteko nerbio bagoa estimulatzean datza. Lau maniobra nagusi burutzen dira gaur egun; Valsalvako maniobra, Valsalva eraldatua, sinu karotideoaren masajea eta ur oso hotzan burua sartzea (paziente pediatrikoetan).

Valsalvako maniobraren (VM) teknikari esker, nerbio bagala estimulatzen da, bihotz maiztasuna jaitsiz eta erritmoa erregulatuz. Maniobra burutzeko, gogor putz egin behar du pazientea 10-15 segunduz, ahoa itxiarekin. Teknika instrumentala izan ahal da (xiringa batekin putz egiten) edo ez instrumentala dispositiborik gabe egiten denean. Valsalvako maniobra 4 fase hemodinamiko osatuta dago. Lehenengo fasea putz egitearekin batera gertatzen da, putz gogor egitean presio torazikoa asko igotzen da, eta beraz, biriketako arteria konprimitzen da, hau gastu kardiakoren murrizpena eragiten du, lehenengo fase hau presio fasea ere deritzo. Bigarren fasean, presio egiteari eutsi behar dio pazientea 10-15 segunduz, hau egitean, tentsio arteriala eta bihotz maiztasuna astiro astiro jaisten doa. Hirugarren eta laugarren fase hemodinamikoan gastu kardiakoa berreskuratzen da barorezeptoreen bitartez (8).

Valsalva eraldatuari (VMe) dagokionez, burutzen den teknika aurrekoaren berdina da, baina, putz egin ondoren pazientea etzan egin behar dute erizainek eta hankak gora mantendu behar dizkiote 10 edo 15 segunduz. Horrela, estimulazio bagal gehiago sortzen da, eta beraz, TSBa erritmo sinusala bilakatzeko beste aukera bat eskaintzen duen teknika da (5).

Bestalde, Valsalvako maniobra oso erabilgarria izan daiteke klinikan, oso sinplea eta merkea delako eta albo ondorio oso gutxi dituelako (nagusiena hipotentsioa da).



Irudi 3. Valsalva maniobreakiko erantzun fisiologikoa. Iturria: Rev. Mex. Cardiol. 2013; 24 (1): 35-40.

Sinu karotideoaren masajearen bestalde, teknika desberdina izaten da. Maniobra hau burutzeko, lehen urratsa sinu karotideoak aurkitzea eta bi sinu karotideoak auskultatzea da, tronboen presentzia baztertzeko. Erreferentzia anatomiko hau karotidaren adarkatzean aurkitzen da, esternokleidomastoideo giharra eta hioides hezuraren artean. Sinu karotideoan barorezeptoreak daude, eta horiek presio arteriala erregulatzen dute estimuluei erantzunez, odol-hodiak uzkuratuz edo zabalduz (9).

Maniobra puntu anatomiko horretan behatzekin goitik beherako masajea 5-10 segunduz aplikatzean datza, profesionalak aukeratzen duen sinu karotideoan (eskuinekoa edo ezkerrekoa), auskultazioaren arabera. Oso garrantzitsua da bi sinu karotideoan masajea ez egitea, garuneko odol fluxua eteteko arrisku handia baitago. Sinu karotideoaren masajearekiko erantzun fisiologiko normal bat maiztasun kardiakoren murrizketa iragankorra eta eroapen nodal aurikulobentrikularren moteltzea da. Sinu karotideoaren masajeak P uhinaren anplitudea gutxitzea ere eragin dezake. Presio arterialaren erantzun tipikoa tonu baskularra gutxitzeak eragindako hipotentsio arin bat izan daiteke. Maniobra egiten den bitartean monitorizazio elektrokardiografikoa egingo da, maniobraren eraginkortasuna probatzeko (9).

Bestalde, sinu karotideoaren masajea kontraindikazioak ditu, haien artean sopro karotideoak edo iktus aurrekariak, tronboak eratzen eta iktus berri bat sortzeko aukera izaten. Hala ere, oso azkar egiten den teknika da eta oso erabilgarria den teknika izan daiteke. Sinu karotideoaren masajea ere, albo ondorioak izan ditzake, hala nola, zorabioak edo sinkopeak (7).

Komunitate zientifikoan hainbat ikuspuntu desberdin daude gai honi buruz. Erizainen zeregina oso garrantzitsua da takikardia suprabentrikularren kudeaketan; izan ere, larrialdietan, lehen osasun-arreta funtsezkoa izan daiteke pazientearen bizitzarako. Tratamendu farmakologikoari dagokionez medikuntzari dagokio. Bestalde, maniobra bagalak (batez ere Valsalva maniobra) bi arloei dagozkie, hala dio Ingalaterran egindako saiakuntza klinikoari buruzko artikulua (10). Hala ere, arlo honi buruzko ikerketa beharrezkoa da biztanleriaren osasun baldintzak hobetzeko eta erizaintzaren jakinduria zabaltzeko, berez, maniobrak erizainak burutu ditzaketelako ikerketen arabera (10). Ospitaleratutako pazienteen kasu edo larrialdi-egoeretan, erizainak dira beti pazienteen lehenengo artapena egiten duten osasun langileak. Lehen aipatutako teknika horien artean (VM, VMe eta SKM) eraginkorrena zein den jakitea funtsezkoa da pazienteen konplikazioak sahiesteko eta hauetaz baliatu pazientearen artapenerako hemodinamikoki larriak diren egoerak sahiesteko. Horrez gain, oso garrantzitsua da erizainek maniobra horiek era egokian menperatzea, haien kontraindikazioak eta ondorio kaltegarri

posibleak ezagututa, pazientearen bizi-kalitatea eta artapena ahalik eta hobereena izateko eta bere segurtasuna bermatzeko. Bestalde, ikerketa honekin TSBen artapen estandar bat lortzea bilatzen da. Arlo honi buruzko ikerketa eguneratuak gutxi direlako, eta, aurrean aipatuta dagoen bezala, prebalentzia handiko patologia delako.

HELBURUA

Takikardia suprabentrikularren maneian, bihotz-maiztasuna bere onera itzultzeko balsalba maniobra eta sinu karotideoaren masajearen eraginkortasuna aztertzea pertsona helduetan.

METODOLOGIA

DISEINU MOTA:

Literaturaten errebisio kritikoa burutu da.

BILAKETA PROZESUA:

Bost datu baseetan (Medline OVID, Cochrane, CINAHL, EMBASE eta LILACS) egindako bilaketa sistematikoen bitartez lortu dira artikuluak (1. ERANSKINA), hurrengo hitz gakoak erabiltzea erabaki zen DeCS/MeSH irizpideak jarraituz; "Tachycardia, Supraventricular" , "Valsalva maneuver", "Carotid sinus" eta "Vagal maneuver". Hitz gakoak datu-baseen tesauroetara itzuli ziren bilaketa eraginkorrakoak lortzeko (2. ERANSKINA). Hitz gakoekin bilaketa-ekuazioak eraiki ziren AND eta OR operadore booleanoekin (1. ERANSKINA). Bestetik, eskuzko bilaketa egin zen ScienceDirect-en hitz gakoak erabiltzen.

Bilaketak egiterakoan hainbat barneratze eta kanporatze irizpide hartu ziren kontuan:

- Barneratze irizpideak:
 - o Pazienteak >18 urte izatea eta TSB diagnostikoa izatea
 - o Argitalpen data: 2013-2023 urteen artekoa
 - o Artikulu motak: AEK, errebisio sistematikoa, ikerketa transbertsalak, erretrospektiboak eta bestelako ikerketa kuantitatiboak.
 - o Hizkuntza: Gaztelera eta ingelesa.
 - o Ikerkuntza gaia: VM,VMe eta SKM ren eraginkortasuna TSBren kardiobertsio ez farmakologikoan.


- Kanporatze irizpideak:
 - o Pazienteak < 18 urte izatea
 - o Pazienteak TSB diagnostikoa ez izatea
 - o Argitalpen data > 10 urtekoa izatea
 - o TSBren manei farmakologikoa eskusiboki jorratzen dituzten artikuluak

Artikuluen aukeraketa burutzeko, lehenengo bikoiztutako artikuluak kanporatu dira. Ondoren tituluaren bitarteko aukeraketa egin da helburuarekin bat ez zetozenak baztertuz. Hau eta gero, artikuluen laburpenak kontuan hartu dira aukeraketa egiteko. Hautatutakoen irakurketa osoa burutu da barneratze irizpideak betetzen ez zituztenak baztertuz. Fluxu-diagraman adierazten da aukeraketaren prozedura (3. ERANSKINA). Azkenik, aukeratutako artikuluen artean, irakurketa kritikoaren bitarteko aukeraketa gauzatu da (4. ERANSKINA). Emaitzak antolatzeke zuhaitz kategorial baten bidez (5. ERANSKINA) hiru kategoriatan antolatu ziren; VM vs VMe, VM vs SKM eta VM vs VMe VS SKM. Azkenik, hautatutako ikerketen laburpenak eta emaitza nagusiak laburpen-taulan (6. ERANSKINA) jasotzen dira era sistematiko batean.

EMAITZAK ETA EZTABAIDA


Ikerketa hau burutzeko metodologia atalean aipatutako prozesuaren bitartez 15 artikuluko zientifiko aukeratu egin dira. Artikulu hauen artean 9 ausazko entsegu klinikoak, 3 ikerketa erretrospektiboak, ikerketa kuasiexperimental bat, kasu kliniko baten txostena eta sinu karotideoaren masajeari buruzko errebisio sistematiko bat aurkitzen dira (*ikusi Grafiko 1*). Herrialde desberdinetan egindako ikerketak barneratu ziren, besteak beste Australia, Pakistan, Korea eta Espainiakoak. Horrez gain, beste herrialdeetan egindako artikuluetan oinarrituz burutu zen literaturaren errebisio literario honek (*ikusi grafiko 2*).

Artikulu motak




Grafiko 1.. Aukeratutako artikuluen artikuluko motaren araberrako grafika. Iturria: Egileak eginda

Herrialdeak



Grafiko 2. Aukeratutako artikuluen herrialdeen araberrako grafika. Iturria: Egileak eginda

Argitalpen urteak



Grafiko 3.. Aukeratutako artikuluen argitalpen urteen araberrako grafika. Iturria: Egileak eginda

Bestalde, artikuluen aukeraketaren prozesuan kontuan euki ziren barneratze irizpideak, hauen artean artikuluen argitalpen-data zegoen. Aukeratutako artikulukoak 2013 eta 2023 urteen artean zeuden

eginda. Hamabost artikuluetatik bi 2014an egin ziren, hiru 2015ean, hiru 2017an, bat 2018an, bi 2019an, bi 2020an, bat 2022an eta azkena 2023an (*ikusi grafiko 3*).

Ikerketaren helburuari erantzuteko, aurrean aipatuta dagoen bezala, eraikitako zuhaitz kategorialaren bitartez (5. *ERANSKINA*) artikulua desberdinen emaitzak eta eztabaidak kontrajarriko dira ondorio argi bat ateratzeko. Emaitzei dagokionez, maniobra bagalei buruzko informazioa batuko da eta hiru kategoriatan banatuko dira datuak, kategoria bakoitza maniobra bagal bakoitzari dagokio (Valsalvako maniobra, Valsalvako maniobra eraldatua eta sinu karotideoaren masajea). Behin, kategoria bakoitzean albo-ondorioen tasak eta kardiobertsio tasak aipatuko dira eta kontrajarriko dira, ondorio bat ateratzeko asmoarekin.

VALSALVAKO MANIOBRA VS VALSALVAKO MANIOBRA ERALDATUA

Valsalvaren maniobra egiteko, ikerketa gehienek metodo komun bat aukeratu zuten (11–15). Metodoaren lehenengo pausua pazienteari esertzea eta 10 ml-ko xiringa bat ematea zen. Pazienteek xiringan putz egin behar zuten 15 segunduz, emboloa mugitzeko. Sortutako presioa 40 mmHg-koa izan zen, maniobra eraginkorra izateko presio nahikoa. Prozesu horren ondoren, minutuan elektrokardiograma bat egin zen, maniobraren eraginkortasuna baloratzeko erantzun hemodinamikoaren bitartez, maniobra eraginkorra ez izatekotan, beste bi saiakera burutu ziren ikerketetan.

Bestalde, Australian egindako ikerketa batek metodologian ez du aipatzen zehazki erabilitako metodoa (16) eta beste bi artikuluk ez dute xiringarik ezta dispositiborik erabiltzen (17,18). Valsalvako Maniobra eraldatua egiteko (VMe), Valsalva Maniobra estandarraren prozedura erabiltzen da, desberdintasun bakarra pazientearen azken posizioa da. MVe-an pazienteak etzanda hasten zuten maniobra eta putz egin ondoren hankak 45º igotzen ziren 15 segunduz, maniobra bagala eraginkorra egiteko. Horrela egin zen MVe aztertu zuten artikulua ia guztietan (11–15,18–20). Mexikon burututako ikerketa kuasiexperimentalan, aldiz, VMe burutzeko metodo desberdin bat erabili zuten, kasu honetan, 10ml-ko xiringa erabili ordez, pazienteak 20 ml-ko xiringa batean putz egin zuten 15 segunduz, hau ondoren, etzan egin ziren eta hankak 45º-tara igo zizkien sanitarioak beste 15 segunduz, eta hau eta gero, amaitzeko, eseritako posizioan jarri zituzten pazienteak 45 segunduz (21).

Erizaintzaren arloan gai oso ospetsua izanda, Espainian Salgado et al.-ek maniobra bagalen ikerketa erretrospektiboa burutu zuten. Ikerketa aurrera eramateko 4 urtean zeharreko barneratze irizpideak betetzen zituzten pazienteak barne hartu zituzten. Ikerketaren helburua maniobra bagalen eraginkortasuna neurtzea zen, kasu honetan, Valsalva Maniobra estandarrarena. Kasuen %35etan aplikatu zen VM estandarra TSB kardiobertitzeko. Hala ere, 70 kasutik 16etan lortu zen maniobraren bitartezko kardiobertsioa. Nahiz eta 0,27-ko proportzioko lorpena izan, ikerlariak ondorioztatu zuten maniobra bagalak oso erabilgarriak direla TSBen lehenengo aukerako tratamenduan, lortu zuten arrakasta-tasengatik eta bere albo-ondorio agerpen baxuarengatik. Salgadok eta bere ikerlari taldeak ere limitazioak aurkitu zituzten ikerketa egiterako orduan; hauen artean nagusia maniobra bagalak oso kasu gutxitan egin zirela izan zen, beste limitazioen artean (22).

2014ean, Smith eta bere ikerlari taldea TSBen artapen preospitalarioari buruzko ikerketa erretrospektiboa burutu zuten (16). Ikerketa urte batean zeharreko TSBdun pazienteak barneratu zituen, 882ko lagina lortuz, TSBdunak izateaz gain, beste barneratze irizpide batzuk betetzen zituzten pazienteak ikerketa aurrera eramateko. Ikerketaren helburua TSBen artapen preospitalarioaren eraginkortasuna neurtzean zetzan, artapen honetan, VM barne hartu zuten. Horrez gain, TSBak pairatzen zituzten pazienteen ezaugarri komunak deskribatzeko helburua finkatu zuten ikerlanan. Maniobra bagalari dagokionez, laginaren 212 pazienteetan burutu zuten (%24). Nahiz eta laginaren

laurden batean VM aplikatu, arrakasta-tasa altua izan zuen, %27,7koa izanez. Valsalvako Maniobra egin ondorengo albo-ondorioak oso gutxitan gertatu ziren, hiru pazienteetan (%1,4) hipotentsio episodioak gertatu baitziren. Ikerlariak VM-ren erabilgarritasuna aipatu zuten TSBen artapen klinikoan, metodo merkea, ez inbasiboa eta albo-ondorio tasa gutxikoa zela argudiatuz. Horrez gain, VM-ren aplikazio baxua limitazioa izan zela aipatu zuten ikerlanean, maniobra honen eraginkortasuna aldarrikatuz eta gehiagotan erabiltzeko beharra aldarrikatuz. TSBak pairatzen zituzten pazienteen ezaugarri nagusien artean emakumea izatea eta 55 urte inguru izatea eta hipertentsio edo hiperkolesterolemia aurrekariak eukitzea identifikatu zituzten (16).

Hurrengo urtean, 2015ean, Smith eta bere ikerlari taldea beste ikerlana burutu zuten TSBekin erlazionatuta (23). Ikerkuntza hau TSBen artapen prehospitalarioa aztertzen zuen gida kliniko baten eraginkortasuna zehaztean zetzan. Ikerlan erretrospektibo honen bitartez, VMren eraginkortasuna eta tratamendu farmakologiko beharra aztertu zuten. Lagina bi taldeetan banatu zuten; preinterbentzioa eta postinterbentzioa, interbentzioa artapenerako gida kliniko berria izanez, gida berriak Valsalva Maniobraren erabilera indartzen zuen eta tratamendu farmakologikoan aldaketak egiten zituen. Valsalva maniobrari dagokionez, ez zegoen alde esanguratsurik bi taldeen artean ($p=0.08$) kardiobertsioari dagokionez; preinterbentzio taldean %27,5 arrakasta izan zen eta postinterbentzio taldean %21,4koa. Izan ere, albo-ondorioetan esanguratsua zen aldea adierazi zuten ikerketan ($p=0,0016$), gida berriari albo-ondorio gehiago izanez, nagusia hipotentsioa izanez. Hala ere, aldarrikatzen dute maniobra bagalen (kasu honetan, Valsalva Maniobra) garrantzia TSBen artapen extraospitalarioan, bere segurtasun klinikoarengatik eta bere arrakasta-tasarengatik, albo-ondorio tasa eta kostu ekonomiko gutxiagorekin batera (23).

Mexikon, Luis F. Hernández-ek eta bere ikerlari taldeak ere VMe-ren eraginkortasuna zehaztu zuten TSB diagnostikatutako pazienteetan, maniobra honen kardiobertsio ahalmena aztertzeko. Maniobra honen eraginkortasuna zehazteko, talde bateko ikerketa kuasiexperimentalak burutu zen, guztiei maniobra berdina aplikatzen. Lagina 46 TSB pairatzen zuten pazientezkoa izan zen, baina kasuetako bat ez zen kontuan hartu maniobra ez zutelako ondo burutu. 45 pazienteetik 20 erritmo sinusalera itzuli ziren maniobra egin eta gero (%44.4). Hauetatik, 16 lehen saiakeran (%80) eta 4 bigarren saiakeran (%20). 25 paziente TSBan jarraitu zuten VMe egin ondoren (%55,5) eta tratamendu farmakologikoa behar izan zuten. Ikerlariak alde estatistikoki esanguratsua aurkitu zuten erritmo sinusalera itzuli ziren pazienteen eta behar farmakologikoa izan zuten pazienteen artean. Hain zuzen ere, kardiobertsioa lortu zuten pazienteen batzuetan adina 32,6 urtekoa izan zen, aldiz, tratamendu farmakologikoa jaso behar izan zutenen batzuetan adina 47,56 urtekoa izan zen ($p=0.01$). Hernández et al.-ek ondorioztatu zuten adina eta arrakasta-tasa alderantzizko porportzionaltasuna mantentzen zutela. Horretaz gain, ikerlanari aipatzen zuten maniobraren eraginkortasuna handiagoa zela artapenaren lehenengo 24 minututan egiten bazen, gainera, VMe-ren segurtasun klinikoa, koste baxua eta albo-ondorio agerpen gutxitua aipatu zuten, maniobra bagal eraginkorra zela ondorioztatzen (21).

Appelboom et al.-ek aurreko teknika hauek kontuan izanda, Valsalva maniobra eta Valsalva Maniobra eraldatuaren kardiobertsio tasak aztertu nahi zituzten, TSBen artapen estandarizatu baten bila. Erresuma Batuan egindako ikerlanari, 18 urterik gorako pazienteak hautatu zituzten, guztiak TSB diagnostiko batekin eta barneratze irizpideak betetzen zituzten. Lagina bi taldeetan banatu zuten, kontrola (VM jaso zituztenak) eta interbentzio taldea (VMe jaso zituztenak). Ikerkuntza honetan, kardiobertsio tasa handiagoa izan zen VMe-an VM-an baino. Azterlanari VM-ak %17 ko kardiobertsio-tasa lortu zuten eta VMe jaso zuten pazienteetan %43koa izan zen ($p=0.001$), beraz, bi maniobren arteko aldea estatistikoki esanguratsua izan zen. Bestalde, albo-ondorioak ere aztertu ziren, VM kasu, %4-etan aurkeztu ziren, gehienetan hipotentsioak izanez eta berez konpontzen. VMe-etan %6etan aurkeztu ziren, haien arteko aldea estatistikoki ez esanguratsua izanez ($p=0,32$) (11).

Chen eta bere ikerlari taldea Txinan egindako ikerlanen Valsalva Maniobra estandarra MV eraldatuarekin alderatu zuten, TSBren artapen estandarizatu baten bila. Emaitzei dagokionez, VMe-ka hiru aldiz baino gehiagoko kardiobertsioak lortu zituen VM-ak estandarra baino (%16), %46etan kardiobertsioa lortzen maniobra egin ostean, 3,8 (2,5-5,9) "effect size" %95eko konfidantza interbaloarekin. Hortaz, Txinan egindako azterlanen ondorioztatu zen VMe zela eraginkorra TSB kardiobertitzeko. Albo-ondorioei begira, hauen agerpena oso gutxitan eman zen, VMe-ren kasu %1.6-etan eta VM-ren kasu %0.8tan, agertutako albo-ondorioek ez zuten suposatuz bizi arriskurik eta berez konpondu ziren (12).

Valsalvako Maniobra estandarra eta eraldatua alderatzen zuen beste ikerkuntza Çorbacioğlu eta bere taldea Turkian egin zuten. Ikerketa honetan, kardiobertsio-tasaz gain, maniobra burutu ondorengo tratamendu farmakologikoaren beharra aztertu zuten. Ikerketa aurrera eramateko, ausazko entsegu kliniko burutu zuten eta 56 pazienteko lagina bi taldeetan banatu zituzten, jasotako maniobra bagalaren arabera. Bi maniobren arteko alde esanguratsua ($p=0.007$) aurkitu zuten TSBen kardiobertsioari dagokionez. VM estandarra jaso zuten populazioan %10,7a soilik erritmo sinusalera itzuli zuten. Bestalde, VMe jaso zutenen %42,9ak itzuli ziren erritmo sinusalera. Gainera, tratamendu farmakologikoaren beharra gehiagokoa izan zen VM estandarra jaso zutenen artean %89,2-ekin ($p=0.001$) (13).

Hildo berean, Egipton egindako ikerkuntzan ere erabaki zuten bi maniobra hauen eraginkortasuna aztertzea, horretarako, lagina bi taldeetan banatu zuten; "A" taldean VM estandarra jaso zuten, "B" taldean, aldiz, VMe jaso zuten. TSBtik erritmo sinusalerako itzulketari handiagoa izan zen B taldean (%46,7) A taldean baino (%20), ($p=0.02$), ikerketak estatistikoki esanguratsua zen aldea adieraziz. Bestalde, postinterbentzioen tartamendu farmakologikoa ere aztertu zuten. A taldean, VM estandarra jaso zuten pazienteen kasu, %80etan tratamendu farmakologikoa behar izan zuten kardiobertitzeko, aldiz, B taldeko pazienteak soilik %53etan behar izan zituzten farmakoak erritmo sinusalera itzultzeko ($p=0.01$), horregatik, ondorioztatu zuten VMe VM estandarra baino eraginkorragoa zela TSBen artapenean, eraginkortasun handiagoa frogatu zuelako eta behar farmakologikoko gutxiagorekin erlazionatu zutelako (18).

Shoukat eta bere taldeak bi maniobren konparaketa ere egin zuten Pakistanen. Horretarako, lagina ere bitan banatu zuten eta talde bakoitzan maniobra desberdina aplikatu zuten, batean VM estandarra eta bestean VMe. Aurreko ikerketa guztietan bezala, emaitzak VMe-ren alde egon ziren, kardiobertsioa %22,5tan lortu zelako, bestalde, VM estandarrekin soilik %6,4en takikardia suprabentrikularrak erritmo sinusalera itzuli ziren. Bi batz bestekoen arteko aldea 8,1-koa izan zen, estatistikoki esanguratsua izanez ikerlarien esanetan. Horretaz gain, interbentzio osteko tratamendu farmakologikoko beharra ere aztertu zuten. Kasu honetan, bi maniobren artean ez zuten aurkitu alde esanguratsurik arlo honi dagokionez (14).

Txinan, bi maniobra hauen konparaketa ere burutu zuten 2020an metodologia berdina jarraituz, lagina bitan banatuz. Ikerketaren emaitzei dagokienez, Valsalvako Maniobra eraldatua TSBren kardiobertsio-gaitasun handiagoa zuela frogatu zuen %47,78ko arrakasta-tasarekin, aitzik, VM estandarrek %15,38tan lortu zuen takikardia erritmo sinusalera itzultzea ($p<0.001$). Gertatutako albo-ondorioak ere aztertu zituzten, larriena min torazikoa izanez. Albo-ondorioen agerpenaren aldea ez zen izan estatistikoki esanguratsua ($p>0,05$) eta berez konpondu ziren bi taldeetan (15).

2017an, Mychaud eta Lang-ek VM-ren modifikazio posturala arrakasta-tasa igo zezakeela frogatzeko, ausazko entsegu kliniko bat burutu zuten. Laginari dagokionez, ikerketa zabala izan zen, 428 pazienteekin egin zena. Entseguan VM eta VMe alderatu zituzten TSBdun pazienteetan, lagina bi taldeetan banatzen. Emaitzak VMe-ren aldekoak izan ziren. VMe-ren taldean 214 pazienteetik 93k

(%43) kardiobertsioa lortu zuten VMe-ren bitartez. Bestalde, VM tradizionalaren taldean 214tik soilik 37 (%17) lortu zuten 3.7 (2.3-5.8)-ko "effect-size"-rekin %95-ko konfidantza interbaloarekin (20). Hala ere, albo-ondorio tasa gehiagokoa izan zen VMe jaso zituzten pazienteen taldean, %6ak albo-ondorio autolimitatuak pairatu zituzten. Beste taldean, %4ak soilik jaso zituzten albo-ondorioak (20). Mychaud eta Lang-ek ikerlana egin ondoren, ondorioztatu zuten VMe VM tradizionala baino eraginkorragoa zela TSBen kardiobertsioari dagokionez. Albo-ondorioei begira, ez zuten estatistikoki esanguratsua zen aldea frogatu ($p=0,26$), 1.61 (0.63-4.08)-ko "effect size"-rekin %95-ko konfidantza interbaloarekin (20).

Takikardia suprabentrikularren artapen estandarizatu bat aurkitzeko asmoz, hainbat ikerlarik VM tradizionala eta eraldatua alderatu dute azken urteetan. Aipatutako entseguen laginari dagokionez, 200 baino gehiagoko laginarekin ikerketak egin zituzten artikuluen artean Erresuma Batuan egindakoak (11,20), Txinan egindakoak (12,15) eta Australian egindakoak (23) aurkitzen dira. Lagina handiagoa izanda, fidagarritasun maila handiagoa da ikerketa hauekin. Kardiobertsio tasei begira, guztiak ondorioztatu zuten VMe arrakasta tasa gehiago euki zuela beren ikerketan, %40aren inguruko zifrak lortzen (11,12,15,20). Australiaren ikerketaren kasu, ez zuen zuzenki bi maniobra konparatu, baizik eta konparatu zuen TSBei buruzko gida kliniko baten aldaketaren eraginkortasuna kardiobertsioetan VM burutzen. Lagin txikiagoa zuten artikuluetan VMe VM tradizionala baino emaitza hobekia ere lortu zituen, arrakasta tasa ere %40aren inguru eukitzen (13,14,18,21). Bi maniobren eraginkortasunari dagokionez, aipatutako ikerketa guztiak bat datozte ondorioztatzen VMe maniobra eraginkorrena dela TSBen artapenean, bere kostu ekonomikoaren ondorioz eta bere egitura sinplearengatik (11–13,15,18,20,21).

Bi maniobretako albo-ondorioak ere aztertu ziren ikerketetan, arlo honetan, emaitza desberdinak egon ziren. Nahiz eta VMe arrakasta-tasa gehiago izan Michaud et al.-ek eta Appelboom et al.-ek diote albo-ondorioen agerpena handiagoa izan zela VM estandarra jaso zutenen pazienteen artean baino (11,20). Hala ere, desberdintasun hori ez zen estatistikoki esanguratsua izan. Bestalde, Chen eta bere taldea Wei Wang eta bere taldearekin bat zetozen, ikerketa hauetan ez zuten aurkitu alde esanguratsurik albo-ondorioen agerpenari dagokionez (12,15).

VALSALVA MANIOBRA VS SINU KAROTIDEOAREN MASAJEA

Sinu karotideoaren masajeari (SKM) buruzko ikerketak ere burutu dira azken 10 urteetan. SKM burutzeko, pazienteak dekubito supinoan jarri zituzten. Behin etzanda, burua masajea egingo zen kontrako aldera begira jarri zuten. Hori eta gero, masajea hasteko mandibularen oinarrian (sinu karotideoan) goitik beherako presioa 10 segunduz egin zuten tonu bagala areagotzeko. Maniobra burutzeko kontraindikazioak kontuan hartu zituzten eta bi sinu karotideoen auskultazioa egin zuten aurretik, tromboak egoten ziren ala ez baloratzeko. Metodo hau SKM aztertzen zuten ikerketa gehienetan erabili zen (19,24). Collins et al.-ek burututako errebisio sistematikoan hiru artikuluetan metodo hau jarraitu zuten SKM burutzeko, bestalde, beste bi ikerketetan SKM 5 segunduz burutu zuten eta beste bi ikerketetan ez zuten aipatu SKM burutzeko metodoa (25). Aitzitik, Aslam et al.-ek artikuluan ez zuten aipatu erabilitako metodoa SKM burutzeko (17).

SKM eraginkortasuna frogatzen zuen errebisio sistematikoa aurrera eraman zuten Collins-ek eta bere taldekideek (25). Errebisioan 7 artikulua aztertu ziren, artikulua gehienak AEK izanda. Ikerlariak ondorioztatu zuten SKM lehen interbentziotzat hartu behar zela maniobra bagalen bidezko TSBen kudeaketa klinikoan. Hala ere, ondorioen artean aipatu zuten maniobra egin aurretik oso garrantzitsua zela baloratzea onura eta arrisku klinikoaren arteko balantzea, bere kontraindikazioak eta gerta daitezkeen albo-ondorioak kontuan izaten. Ere bai, aipatu zuten beste maniobra bagalen (VM) edo

tratamendu farmakologikoaren garrantzia TSBen artapenean. Azkenik, Collins et al.-ek ondorioztatu zuten errebisioan SKMren erritmo sinusalaren itzulketan zuten kardiobertsio-tasa normalean moderatua zela. Eta gerta daitezkeen albo-ondorio nagusiak, haien artean larriena min iatrogenikoa zela argudiatu zuten, nahiz eta arraroa izan hau agertzea (25).

Aldiz, Kanadan, Ahmed-ek eta bere taldeak literaturaren errebisioaz gain, kasu kliniko baten txostena ikertu zuten sinu karotideoaren masajearen eraginkortasuna frogazeko. Kasuari dagokionez, 79 urteko emakume baten kasu klinikoa azaldu zuten. Emakumeak palpitazio episodioak izan zituen 3 urteetan zehar eta EKGan QRS estuko takikardia suprabentrikularra aurkitu zioten ospitaleraketa batean. Pazienteak aurrekari kardiologikoak bazituen (eskuineko bentrikuluaren disfuntzioa) eta biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa, Salbutamolarekin tratamenduan zegoena. Behin EKGa eginda, eskuineko takikardia atriala diagnostikatu zioten, eta SKMa hautatu zuten tratamendu gisa. Azaldutako kasu honetan, takikardia suprabentrikularra sinu karotideoaren masajearekin erritmo sinusalaria itzuli zen, albo-ondoriorik gabe. Ahmed-ek eta kideek, kasu klinikoaren azalpenekin sinu karotideoaren takikardia suprabentrikularretatik erritmo sinusalaria itzultzeko duen ahalmena aldarrikatu zuten. Ikerketan ondorioztatu zuten sinu karotideoaren masajea maniobra eraginkorra eta segurua zela takikardia suprabentrikularretan, batez ere, takikardia atrialetan (24).

Pakistanen egindako ikerkuntzan, non konparatu zuten Valsalva Maniobraren eta Sinu Karotideoaren Masajearen eraginkortasuna TSBak artatzeko, beste ikerlanetan bezala, lagina bi taldeetan banatu zen jasotako interbentzioaren arabera; A taldea (VM) eta B taldea (SKM). Emaizak B taldearen kontra jo zuten, izan ere, SKM %36ko arrakasta-tasa izan zen, eta VM, aldiz, %60koa. Bi maniobren arteko aldea estatistikoki esanguratsua izan zen ($p=0.001$), ondorioztatzen Valsalvako Maniobra Sinu Karotideoen Masajea baino eraginkorragoa zela TSBen kudeaketa klinikoan (17). VM estandarra eta SKM alderatzean, Aslam eta bere taldea TSBen tratamendurako lehenengo aukeratzat hartzen dute VM-a (17).

Oso maniobra erabilgarria izan daitekeen arren, ez da maniobra oso erabilia kliniketan (25), metodo berezia behar duelako eta albo-ondorio gehiagorekin erlazionatzen delako. Horrela definitu zuten Collins eta bere taldea SKM-ren eraginkortasuna. Horretaz gain, Valsalva maniobra edota beste maniobra bagalen erabilera azkarragoa dela eta segurtasun gehiagokoa dela aipatzen dute bere errebisio literarioan (25). Azkenik, kasu klinikoari dagokionez, lagina paziente batekoa izanenez ez du fidagarritasun maila handirik izaten. Hala ere, Ahmed eta bere ikerlari taldeak aipatzen dute maniobra hau (SKM) oso erabilgarria izan daitekeela TSBren kardiobertsioetan, eta, Collins eta Aslamekin bat datoz sinu karotideoaren masajeari buruzko gaur egungo ikerkuntzak gutxiak direla, honetaz gehiago ikertzeko beharra aldarrikatuz (17,24,25).

VALSALVA MANIOBRA VS VALSALVA MANIOBRA ERALDATUA VS SINU KAROTIDEOAREN MASAJEA

Turkian, hiru maniobra bagalen konparaketa egin zuten (MV, MVe eta SKM), hirutatik eraginkorrena zein den zehazteko. Horretarako barneratze irizpideak betetzen zituzten 98 paziente ausazko hautaketaren bidez aukeratu zituzten eta hiru taldeetan banatu zituzten burututako maniobraren arabera. VMe-a 32 pazienteek jaso zuten (A taldea), eta VM (B taldea) eta sinu karotideoaren masajea

(C taldea) 33 pazientek jaso zuten. Maniobrei dagokionez, lehen azaldutako prozesuaren bidez burutu ziren, sinu karotideoaren masajearen kasu, jarrera supinoan burutu zen, lepoa masajea egiten zen kontrako aldea begira egoten eta masaje aplikatzen presio uniformearekin eta goitik beherakonoranzkoarekin 10 segunduz. Hau eta gero, EKGren bidezko kontrola burutu zen. Emaitei dagokionez, A taldeak lortu zuen %43,7-ko kardiobertsio-tasa, B taldea %24,2 eta C taldea %9,1-koa berehalazko erantzun fisiologikoaren bitartez ($p= 0.006$). Maniobra egin eta geroko lehenengo minutuan A taldean pazienteen %37,5 erritmo sinusalera itzuli ziren, B taldean %12,1-a eta C taldean %6,1-a, alde esanguratsua izanez ($p= 0.003$). Azkenik, maniobra egin zenetik 5 minuturako kardiobertsio tasa altuena A taldekoa ere izan zen %28,1-a izanez, aldiz, B taldean %6,1-koa izan zen, eta C taldean, %3-koa ($p= 0.04$). Albo-ondorioei begira, ikerketan oso maiztasun gutxirekin gertatu ziren hiru maniobretan, eta gertatu zirenak autolimitatuak izan ziren eta ez zuten suposatu arriskurik pazienteengan (19).

Turkian egindako hiru maniobren arteko konparaketa oso erabilgarria izan da ikerkuntzetako. Izan ere, hiru maniobra bagal nagusien arteko konparaketa egin da. Ceylan (19) eta bere taldea bat datozte aurreko artikuluekin, defendatzen VMe-a maniobra eraginkorrena dela, bere albo-ondorio tasa baxuarengatik eta kardiobertsio ahalmenarengatik. Horretaz gain, VMe-ren arrakasta tasa Appelboom, Chen, Youssef, Wang eta Michaud ikerkuntzen arrakasta-tasa berdintsua da (11,12,15,18,20). Albo-ondorioei dagokionez, Ceylan (19) eta bere taldeak burututako ikerlanean ez ziren egon albo-ondoriorik maniobrak gauzatzean eta egon zirenak berez konpondu ziren, Chen et al eta Wei Wang et al.-en ikerketetan bezala (12,15).

ONDORIOAK

TSB-ren artapenarako hainbat aukera daukate osasun langileak. Tratamendu ez farmakologikoari dagokionez, maniobra bagalak dira erabili dezaketen interbentzio nagusiena. Hainbat ikerketa egin dira takikardia mota hauen kudeaketa klinikoa ahalik eta eraginkorrena izateko eta protokolo bat eratzeko.

